

3.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) 2019-2022 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa, Eusko Jaurlaritzak egin dituen aurreikuspenak, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarrearen aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

3.1.- Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

3.- PREVISIONES ECONÓMICAS

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2019-2022 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por el Ministerio español de Economía y Hacienda, las previsiones del Gobierno Vasco y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

3.1.- FMI

3.1.1. taula.- NDF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak
Cuadro 3.1.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2019	2020	2021	2022
BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)				
Mundu osoa / Total mundial				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	2,8	-3,2	6,0	4,9
Estatu Batuak / Estados Unidos	1,6	-4,6	5,6	4,4
Japonia / Japón	2,2	-3,5	7,0	4,9
Erresuma Batua / Reino Unido	0,3	-4,7	2,8	3,0
Eurogunea / Zona euro	1,4	-9,8	7,0	4,8
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak/Países en desarrollo y mercados emergentes	1,3	-6,5	4,6	4,3
	3,6	-2,1	6,3	5,2
KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	1,4	0,7	1,6	1,7
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak /Países en desarrollo y mercados emergentes	5,1	5,1	4,9	4,4
MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ)	0,9	-8,5	8,4	6,5
COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)				

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI)

2021eko apirilean Munduko ekonomiaren aurreikuspenak izeneko proiektzioak argitaratu zirenetik, aurreikuspen ekonomikoak are gehiago aldatu dira herrialdeen artean. Txertoetarako aukera arrakala handiena izaten ari da, eta horren eraginez mundu mailako suspertzean bi bloke bereizten dira: urte honen amaiera alderako jardueraren normaltze handiagoa espero dezaketen herrialdeak (ekonomia aurreratu gehienak), eta oraindik ere kutsatzean eta COVID biktimen gorakadari aurre egin behar diotenak. Alabaina, suspertzea ez dago ziurtatuta, ezta oso infekzio maila txikiak dauzkaten herrialdeetan ere, beste herrialde batzuetan birusa badabilen bitartean.

Munduko ekonomia 2021ean % 6,0 eta 2022an % 4,9 haziko den proiektzioak egiten ari dira. Gorantz datozen eta garapen bidean diren merkatuetako ekonomien perspektibak

Las perspectivas económicas han divergido aún más entre los países desde las proyecciones publicadas en abril de 2021 de Perspectivas de la economía mundial. El acceso a las vacunas se ha convertido en la principal brecha a lo largo de la cual la recuperación mundial se divide en dos bloques: los países que pueden esperar una mayor normalización de la actividad a finales de este año (casi todas las economías avanzadas) y aquellos que todavía se enfrentan a un rebrote de contagios y un aumento del número de víctimas de COVID. Sin embargo, la recuperación no está asegurada incluso en aquellos países con niveles de infección muy bajos mientras el virus circule en otros países.

Se proyecta que la economía mundial crezca 6,0% en 2021 y 4,9% en 2022. Las perspectivas de las economías de mercados emergentes y en desarrollo para 2021 se han



beherantz berrikusi dira 2021erako, Asiako gorabideko ekonomien kasuan batez ere. Aldiz, ekonomia aurreratuentzako proiektioak gorantz berrikusi dira. Berrikuspen horiek pandemiaren bilakaera eta laguntza-politiketako aldaketak islatzen dituzte. 2022rako 0,5 portzentaje-puntuko igoera jasotzen duen pronostikoa ekonomia aurreratuei –batez ere Estatu Batuetakoari– buruzko pronostikoa gorantz berrikustearen ondorio da; izan ere, 2021eko bigarren seihilekoan zerga-laguntza gehigarria emateko aurreikusitako legedia izango dela islatzen du, oro har talde osoan osasun-adierazleek erakusten duten hobekuntzarekin batera.

Duela gutxi prezioen gainean izandako presioek pandemiarekin lotutako bilakaera ezohikoa eta eskaintzaren eta eskaeraren artean sortutako desoreka iragankorrak erakusten dituzte, neurri handi batean. Aurreikusten da inflazioa, herrialde gehienetan, pandemia aurretik erregistratzen ziren mailetara itzultzea 2022an, perturbazio horiek prezioetan islaturik geratu ahala, baina oraindik ere oso ziurgabetasun handia dago. Era berean, aurreikusten da inflazioa altua izatea gorabideko eta garapen bideko ekonomia batzuetan, elikagaien prezioen maila altuagatik neurri batean. Banku zentralek, oro har, zehatz-mehatz aztertu beharko lituzkete inflazioaren gainerako presio iragankorrak, eta politikak gogortzea saihestu, harik eta prezioen azpiko dinamikari buruzko ideia garbiago bat izan arte. Banku zentralek diru-politiken ikuspegiei buruzko komunikazio argia egitea funtsezkoa izango da inflazio igurikimenak itxuratzeko eta finantza-baldintzen gogortze goiztiar batetik begiratzeko. Dena den, gerta daiteke presio iragankor horiek iraunkorrago bihurtzea, eta banku zentralek, seguruenik, prebentzio neurriak hartu behar izatea.

Oinarritzko eszenatokiaren inguruko arriskuak beherantz doaz. Txertatze erritmoa aurreikusia baino motelagoa izanez gero, birusak aukera izango luke are gehiago mutatzeko. Finantza-baldintzak bizkor gogor litezke horrelako batean, esate baterako ekonomia aurreratuetan inflazio igurikimenak aurreikusi baino bizkorrago haziz gero diru-politikaren perspektibak atzera ebaluatzearen ondorioz. Pandemiaren dinamikak okerrera egin eta kanpoko finantza-baldintzak gogortuz gero, gorantz datozen eta garapen bidean diren ekonomiek kolpe bikoitza hartuko lukete, eta horrek eragin latza izango luke ekonomia

revisado a la baja, especialmente para las economías emergentes de Asia. En cambio, las proyecciones para las economías avanzadas se han revisado al alza. Estas revisiones reflejan la evolución de la pandemia y los cambios en las políticas de apoyo. El aumento de 0,5 puntos porcentuales para 2022 se deriva principalmente de la revisión al alza del pronóstico de las economías avanzadas, particularmente Estados Unidos, que refleja la adopción prevista de legislación para proporcionar apoyo fiscal adicional en el segundo semestre de 2021 y una mejora de los indicadores sanitarios, en general, en todo el grupo.

Las recientes presiones sobre los precios en gran parte reflejan la inusual evolución relacionada con la pandemia y los desajustes transitorios entre la oferta y la demanda. Se prevé que la inflación regrese a los rangos que se registraban antes de la pandemia en la mayoría de los países en 2022 una vez que estas perturbaciones vayan quedando reflejadas en los precios, pero persiste una gran incertidumbre. También se prevé que la inflación sea elevada en algunas economías emergentes y en desarrollo, debido en parte al alto nivel de los precios de los alimentos. Los bancos centrales deberían en general examinar detenidamente las presiones transitorias sobre la inflación y evitar un endurecimiento de las políticas hasta que se tenga una idea más clara de la dinámica subyacente de los precios. Una comunicación clara por parte de los bancos centrales sobre las perspectivas de la política monetaria será fundamental para conformar las expectativas de inflación y salvaguardarse de un endurecimiento prematuro de las condiciones financieras. No obstante, existe el riesgo de que las presiones transitorias se vuelvan más persistentes y los bancos centrales posiblemente necesiten tomar medidas preventivas.

Los riesgos en torno al escenario base se inclinan a la baja. Un ritmo de vacunación más lento de lo previsto permitiría que el virus mutara aún más. Las condiciones financieras podrían endurecerse rápidamente, por ejemplo, por efecto de una revaluación de las perspectivas de la política monetaria en las economías avanzadas si las expectativas de inflación aumentarían más rápidamente de lo previsto. Un doble golpe a las economías emergentes y en desarrollo por el empeoramiento de la dinámica de la pandemia y el endurecimiento de las condiciones financieras externas afectaría gravemente su

horiek suspertzera begira, mundu mailako hazkundea ere murrizaraziz, gainera, perspektiben oinarritzko eszenatoki horren azpitik.

Alde anitzeko ekintza funtsezkoa da desadostasunak murrizteko eta mundu mailako ikuspegiak indartzeko. Oraingo bertako lehentasuna txertoak mundu osoan modu ekitatiboan banatzea da. Nazioarteko Diru Funtseko (NDF) teknikariek egindako proposamenak, 50.000 milioi dolarreko kopurukoak eta Munduko Osasun Erakundeak, Munduko Merkataritza Erakundeak eta Munduko Bankuak elkarrekin abalatuak, helburu argiak eta neurri pragmatikoak ezartzen ditu, kostu onargarri batez, pandemiari amaiera emateko. Finantza aldetiko mugak dauzkaten ekonomiek ere murrizketarik gabeko aukera behar dute nazioarteko likidezia eskuratzeko. NDFren proposamenak, 650.000 milioi dolarren pareko igorpen edo biramendu eskubide berezien esleipen orokor baterakoak, helburu du ekonomia guztietako erreserbako aktiboak handitzea eta likidezia murrizketak arintzen laguntzea. Herrialdeek ere bere ahalegin kolektiboak sendotu behar dituzte, berotegi efektuko gas emisioak murrizteko. Ekintza alde anitzeko horiek are gehiago sendotu daitezke nazio mailako politiken bidez, betiere krisiaren etapa bakoitzari egokituta, lagungarri izan baitaitezke suspertze jasangarri eta inklusiboa katalizatzeak. Politika itunduak eta ondo orientatuak aplikatzeak marka dezake ekonomia guztientzako errekonberazio iraunkorreko etorkizunaren eta arrakala gero eta sakonagoak dituen etorkizun baten arteko aldea; izan ere, ekonomia horietako asko osasun krisiaren aurkako borrokan ari diren bitartean, gutxi batzuek bere egoera normalizatzen ari dela ikusten dute, agerraldi berriak gertatzeko etengabeko mehatxua dutela inolaz ere.

3.2.- ESPAINIAKO ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA 2020-2022 EPEALDIRAKO

Datuen argitan, baina, badirudi espainiar ekonomia suspertzeko bidearen hasiera uda iritsi arte behintzat atzeratuko dela. Jarduerarako eta mugikortasunerako murrizketa handiak mantentzeak, txertaketa-kanpainaren aurrerapen motelarekin batera, kontsumo pribatua bridatzen du, eta jardueraminimoetan mantentzen ditu turismoaren eta ostalaritzaren sektoreak. Barne eskariaren ahuleziari esportazio merkatu nagusietako batzuen uzkuetzea gehitu behar zaio, European bereziki, non koiunturazko adierazleek

recuperación y podría reducir el crecimiento mundial por debajo de este escenario base de las perspectivas.

La acción multilateral es esencial para reducir las divergencias y fortalecer las perspectivas mundiales. La prioridad inmediata es distribuir las vacunas equitativamente en todo el mundo. La propuesta del personal técnico del FMI por un monto de USD 50.000 millones, avalada conjuntamente por la Organización Mundial de la Salud, la Organización Mundial del Comercio y el Banco Mundial, establece metas claras y medidas pragmáticas a un costo asequible para poner fin a la pandemia. Las economías con limitaciones financieras también necesitan un acceso irrestricto a la liquidez internacional. La propuesta del FMI de una asignación general de derechos especiales de giro (DEG) equivalente a USD 650.000 millones tiene por objetivo aumentar los activos de reserva de todas las economías y ayudar a atenuar las restricciones de liquidez. Los países también necesitan redoblar sus esfuerzos colectivos para reducir las emisiones de gases de efecto invernadero. Estas acciones multilaterales pueden reforzarse mediante políticas a nivel nacional adaptadas a cada etapa de la crisis que ayuden a catalizar una recuperación sostenible e inclusiva. La aplicación de políticas concertadas y bien orientadas puede ser lo que marque la diferencia entre un futuro de recuperaciones duraderas para todas las economías o uno con brechas cada vez más profundas, ahora que muchas de ellas luchan contra la crisis sanitaria mientras unas pocas ven como su situación se normaliza, aunque con la amenaza constante de que se produzcan nuevos brotes.

3.2.- CUADRO MACROECONÓMICO DEL ESTADO ESPAÑOL PARA EL PERIODO 2020-2022

Todo apunta a que la senda de recuperación de la economía española se retrasará al menos hasta la llegada del verano. El mantenimiento de fuertes restricciones a la actividad y a la movilidad, unido al lento avance de la campaña de vacunación, lastra el consumo privado y mantiene a los sectores del turismo y de la hostelería en mínimos de actividad. A la debilidad de la demanda interna se añade la contracción de algunos de los principales mercados de exportación, particularmente en Europa, donde los

beheranzko joera baitute, Alemanian eta Frantzia batez ere.

Urteko bigarren partean zehar joera aldaketa bat izango da, txertaketak osasun egoeran eragin eta murrizketak lasaitu ahala, horrek guztiak gastu pribatua eta turismoa lehengoratzten lagunduko baitu. Bestetik, bigarren seihilekoan zehar inbertsio publikoaren hazkundea aurreikusten da, horixe gertatuko omen da-eta suspertze plan nazionalako proiektuek Europako Batzordearen abala jaso ahala. Kanpo testuingurua ere hobetuko da, AEBetan batez ere, politika fiskal hedakorrenaren eskutik.

Guztiarekin ere, urte hasiera ahula izan dela eta europar bazkide nagusiek ekonomiaren arloan dituzten itxaropenek okerrera egin dutela, 2021erako hazkunde aurreikuspena % 6,5eraino murriztu da. Murrizketak kontsumo pribatuaren hazkunde txikiagoa islatzen du batez ere, izan ere etxeetan, osasun krisi luzeko testuinguruan, neurtu egiten da gastua. Inbertsioa neurri batean errekuiperatzeko aurreikuspena mantentzen da, europar funtsek pizgarri eginkizuna beteko dutela iritzita. Kontsumo publikoa, bere aldetik, gorantz berrikusi da (2020ko urtearen azken partean administrazioen gastuak izandako bizkortzearen eta horrek aurtengo ekitaldian eragindako arraste efektuaren ondorioz). Kontsumo publikoaren indarrari esker, barne eskaerak areagotu egin du hazkundeari egiten dion ekarpena, 6,5 puntuetaraino helduz. Hala ere, kanpo sektoreak indarra kenduko dio hazkundeari, turismoa lehengoratzeko horren atzerapenagatik.

Urtearen bigarren zatia bultzada hedakorra 2022ra aldatuko da. Urte horretarako, % 7,0ko hazkundea espero da. Errekuperazioaren faktore nagusiak erabateko indarrez garatuko dira: kontsumo pribatua indar handiz haziko da krisiak sortutako gehiegizko aurrezkiaren zati handi bat xurgatzeari esker; turismoa pixkanaka normalizatuko da, beharbada pandemia aurreko erregistroetara hurbilduko den udako denboraldi batekin; eta Europako suspertze planetik datozen estimuluek aurtengo esperotako direnak gaitutuko dituzte agian, abian jartzeko prozedurak ondo ezarrita daudenean. Hala, hazkundean ekarpen zeharo positiboa espero da, bai barne eskaeraren bai kanpo sektorearen aldetik.

Errekuperazioak erraztu egingo du gaur egun ABEEn dauden soldatapekoen eta egun

indicadores coyunturales se orientan a la baja, especialmente en Alemania y Francia.

Durante la segunda parte del año se producirá un cambio de tendencia, a medida que la vacunación incida sobre la situación sanitaria y que las restricciones se relajen, facilitando la recuperación del gasto privado y del turismo. Por otra parte, se anticipa un incremento de la inversión pública durante el segundo semestre, a medida que los proyectos del plan nacional de recuperación reciban el aval de la Comisión Europea. El contexto externo también mejorará, sobre todo en EE. UU., de la mano de la política fiscal expansiva.

Con todo, ante el débil inicio del año y el deterioro de las perspectivas económicas de los principales socios europeos, la previsión de crecimiento para 2021 se reduce hasta el 6,5%. El recorte refleja principalmente el menor crecimiento del consumo privado, como consecuencia de la reticencia de los hogares a gastar en un contexto de crisis sanitaria prolongada. La previsión de recuperación parcial de la inversión se mantiene, en línea con el estímulo esperado de los fondos europeos. El consumo público, por su parte, se revisa al alza (como consecuencia de la aceleración del gasto de las administraciones registrado durante el tramo final del 2020, y del efecto de arrastre sobre el presente ejercicio). Gracias al tirón del consumo público, la demanda interna incrementa su aportación al crecimiento, hasta 6,5 puntos. Sin embargo, el sector externo detraerá el crecimiento, por el retraso de la recuperación del turismo.

El impulso expansivo de la segunda parte del año se trasladará a 2022. Para ese año, se espera un crecimiento del 7,0%. Los principales factores de la recuperación operarán a pleno rendimiento: el consumo privado crecerá con fuerza gracias a la absorción de buena parte del sobre-ahorro generado por la crisis; el turismo se normalizará progresivamente, con una temporada de verano que podría acercarse a los registros pre-pandemia; y los estímulos provenientes del plan europeo de recuperación podrían superar los que se espera para este año, una vez los procedimientos de puesta en marcha estén bien establecidos. Con todo, se espera una aportación al crecimiento netamente positiva, tanto de la demanda interna como del sector externo.

La recuperación facilitará la reincorporación del elevado número de asalariados actualmente en

jarduera-bukaeran dauden autonomoen kopuru handia berriro lanean hastea, eta, beraz, inpaktua mugatua izango da enplegu berrien sorrerari dagokionez. Langabezia tasa % 15,2koa izango da aurreikuspen epearen amaieran, krisiaren aurretik % 14,1ekoa zela portzentaje hori.

Aurten kanpo superabita murriztu egingo da, batez ere petrolioaren prezioaren igoeragatik, eta 2022an gora egingo du, turismoa suspertzeari esker. Defizit publikoa maila altuetan mantenduko da: BPGd-aren % 8,4koa kalkulatzen da 2021ean, eta % 5,0koa 2022an. Horrek esan nahi du zor publikoa 190.000 milioi euro inguru handituko dela epe osoan zehar, nahiz eta BPGd-aren gaineko ratioa % 118 inguruan mantenduko den BPGd nominalaren igoeragatik.

Inflazio tasari dagokionez, aurten % 1,5eko igoera aurreikusten da, batez beste, petrolioaren prezioaren gorakadaren eraginez batetik, eta zerbitzu batzuetako prezioen gorakadaren eraginez bestetik, iaz jaitsiera handiak izan baitzituzten krisiaren ondorioz, hotelek, aireko garraioak edo turismo paketeek esate baterako. 2022rako jaitsiera txikia espero da. Dena den, bada gorantz desbideratzeko arriskua ere, gerta baitaiteke eskaera eskaintza baino bizkorrago lehengoratzeari produktzio ehunaren suntsitze handiagoa jasaten ari diren sektoreetan, hala nola turismoan eta jatetxe edo sukaldaritzaaren arloan.

Aurreikuspen horiek betetzeko, pandemiaren kudeaketari, politika ekonomikoaren eraginkortasunari eta erreformak egiteari lotutako jaitsiera-arriskuak saihestu behar dira. Lehenik, txertaketaren hedapenaren lastertasuna eta duen eraginkortasuna faktore erabakigarriak dira udako denboraldira begira. Bigarrenik, susperraldiaren intentsitateak proportzioa gordeko du gaur egun bideragarriak badira ere kaudimengabeziaren mugan dauden enpresei laguntzeko neurrien eraginkortasunaren. Azkenik, susperraldi guztietan bezala, merkatuen igurikimenek funtsezko eginkizuna dute. Eta igurikimen horiek, bere aldetik, erreforma berriak abian jartzeko gaitasunaren mende daude, atzerapenak saihestu behar baitira dagoeneko martxan diren erreformetan, neurrien diseinua eraldaketa digitalaren, ingurumenekoaren eta sozialaren helburuetara egokitzearekin batera. Europar funtsen kudeaketak ere egiturazko hobekuntzak behar ditu.

Erronka horiek direla eta, arreta berezia jarri

ERTE y de autónomos en cese de actividad, y por tanto el impacto sobre la creación de nuevos empleos será limitado. La tasa de paro todavía alcanzaría el 15,2% al final del periodo de previsión, frente al 14,1% antes de la crisis.

El superávit externo se reducirá este año debido, sobre todo, al aumento del precio del petróleo, y aumentará en 2022 gracias a la recuperación del turismo. El déficit público se mantendrá en niveles elevados: se estima un 8,4% del PIB en 2021 y un 5,0% en 2022, lo que supondrá un incremento de la deuda pública de unos 190.000 millones de euros en el conjunto del periodo, si bien la ratio sobre el PIB se mantendrá en torno al 118% por el incremento del PIB nominal.

Con respecto a la tasa de inflación, se prevé un incremento este año hasta el 1,5% de media anual, como consecuencia del aumento del precio del petróleo así como de la recuperación de los precios en algunos servicios que el año pasado registraron fuertes descensos a consecuencia de la crisis, como hoteles, transporte aéreo o paquetes turísticos. Para 2022 se espera un ligero descenso. No obstante, existe un riesgo de desviación al alza, debido a la posibilidad de una recuperación de la demanda más rápida que de la oferta en los sectores que están sufriendo una mayor destrucción del tejido productivo como el turismo y la restauración.

El cumplimiento de estas previsiones depende de que se eviten los riesgos a la baja ligados a la gestión de la pandemia, la efectividad de la política económica y la adopción de reformas. En primer lugar, la rapidez del despliegue de la vacunación y su efectividad son factores decisivos de cara a la temporada de verano. En segundo lugar, la intensidad de la recuperación será proporcional a la efectividad de las medidas de apoyo a las empresas que actualmente se encuentran al borde de la insolvencia pese a ser viables. Finalmente, como en toda recuperación, las expectativas de los mercados juegan un papel crucial. Y éstas a su vez dependen de la capacidad para poner en marcha nuevas reformas, evitando retrocesos en las ya adoptadas y adaptando el diseño de las medidas a los objetivos de transformación digital, medioambiental y social. La gestión de los fondos europeos también requiere mejoras estructurales.

Ante estos desafíos, conviene prestar especial

behar zaio turismoaren eboluzioari. Sektorea bere bigarren krisi urtean sartzeaz dago, eta enpresa asko dauzka kaudimengabeziaren mugan. Aurreikuspen horietarako, bigarren hiruhilekotik aurrerako susperraldi mailakatuaren hipotesia hartzen da abiapuntutzat, hau da, datorren udako denboraldian turismoak eragindako diru-sarrerak aurreko ekitaldiko erregistroetara hurbilduko direla jotzen da; horiek, bere aldetik, krisi aurreko mailaren laurdena inguru dira. Susperraldia aurreikuspen epearen gainontzeko denboran zehar finkatuko da. Eta, horren guztiaren ondorioz, 2022ko urtearen amaieran turismoak berreskuratua izango du krisiagatik galdutakoaren % 75.

Normalizazio bizkortu baten kasuaren arabera aztertutik, esango dugu sektorea, datorren udan, krisi aurreko mailaren % 50era iritsiko dela, eta % 95era 2022koaren amaieran. Egoera baikor horretan, BPGd-aren hazkundeak ere gora egingo du.

Egoera ezkor batetik aztertutik, ekitaldi honetan bidaiatzeko beldurrak irauten duela, turismoaren susperraldia 2022ra arte atzeratuko da. Ondorioz, BPGd-aren hazkundera ere murriztu egingo da. Gainera, kasu horretan produkzio ehuna galtzeko arriskua oso handia izango da, eta sektorea berregituratzea eskatuko du.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea ezen, inbertsioen eta erreformen konbinazioa erabakigarria bada ere ekoizpen eredua epe ertain eta luzera begira eraldatzeko, epe motzean susperraldia turismoaren bilakaeraren mende dagoela neurri handi batean. Hala, turismoaren susperraldiari buruzko hipotesietan erdikora joz gero, esango dugu europar funtsek 2022an % 1,7 igoko dutela BPGd-a, funtsik gabeko egoerarekiko; baina turismoaren susperraldiari buruzko hipotesi baikorrenaren bidetik baldin bagoaz, esan behar BPGd-a % 3,4 gorago egongo dela funtsik gabeko egoeran baino.

atención a la evolución del turismo. El sector está a punto de entrar de su segundo año de crisis, con muchas empresas al borde de la insolvencia. En estas previsiones, se parte de la hipótesis de una recuperación gradual a partir del segundo trimestre, de modo que los ingresos por turismo obtenidos durante la próxima temporada de verano se acercarán a los registros del pasado ejercicio –que a su vez representan cerca de la cuarta parte del nivel pre-crisis. La recuperación se afianzaría durante el resto del periodo de previsión. Fruto de ello, a final de 2022, el turismo habría recuperado el 75% del terreno perdido por la crisis.

Bajo el supuesto de una normalización acelerada, el sector alcanzaría el 50% de su nivel pre-crisis durante el próximo verano, y el 95% a finales de 2022. En este escenario optimista, el crecimiento del PIB se elevaría.

En un escenario pesimista de persistencia del miedo a viajar durante el presente ejercicio, la recuperación del turismo se retrasaría hasta 2022. Como consecuencia, el crecimiento del PIB se reduciría. Además, en este caso el riesgo de pérdida de tejido productivo sería muy elevado, exigiendo una reestructuración del sector.

Finalmente, es importante subrayar que, si bien la combinación de inversiones y reformas es crucial desde el punto de vista de la transformación a medio y largo plazo del modelo productivo, a corto plazo la recuperación depende en buena medida de la evolución del turismo. Así, en el escenario central en cuanto a la hipótesis sobre la recuperación del turismo, los fondos europeos elevarían el PIB en 2022 un 1,7% por encima del PIB de un escenario sin fondos, pero bajo la hipótesis más optimista sobre la recuperación del turismo, el PIB sería un 3,4% superior al del escenario sin fondos.

3.2.1. taula.- Estatuko proiektzio makroekonomikoak Cuadro 3.2.1.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2020	2021	2022
BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren Δ) / PIB Y AGREGADOS (Δ % REAL)			
Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1)	-12,1	7,3	6,9
Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público	3,8	2,5	1,5
Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital	-11,4	9,0	12,4
Barne eskaria/ Demanda interna	-8,8	6,5	6,7
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios	-20,2	10,0	10,3
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios	-15,8	10,3	10,0
Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2)	-2,0	0,1	0,2
Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto	-10,8	6,5	7,0

PREZIOAK ETA KOSTUAK (Δ %) / PRECIOS Y COSTES (Δ %)			
BPGaren deflatorea / Deflactor del PIB	1,1	1,2	1,5
LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO			
Enplegua, guztira (bariaz. %tan) / Empleo Total (variación en %)	-7,5	4,0	2,7
Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa)	15,5	15,2	14,1

(1) Etheen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares

(2) BPGaren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

3.3.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak euskal ekonomiarako aurkeztutako eszenario makroekonomikoak hainbat egoera hartzen ditu oinarri gisa: munduko ekonomiaren bilakaera, euroak dolarren aldean duen kanbio tasa, deflaktoreak, eta Europako Banku Zentralak aurreikuspenetan aztertutako epealdirako ezartzen dituen interes tasak.

3.3.- GOBIERNO VASCO

El escenario macroeconómico de la economía vasca presentado por la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco se basa en unos supuestos relativos a la evolución económica mundial, al tipo de cambio del euro frente al dólar, a los deflatores y a los tipos de interés que establezca el Banco Central Europeo para el horizonte temporal contemplado en las previsiones.

3.3.1. taula.- EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK

Cuadro 3.3.1.- PREVISIONES PARA LA ECONOMÍA VASCA

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2020	2021	2022
BPG / PIB	-9,9	6,7	6,4
Azken kontsumoa / Consumo final	-8,9	6,7	5,7
Kontsumo pribatua / Consumo privado	-12,4	7,9	6,8
Kontsumo publikoa / Consumo público	3,8	3,1	1,9
Kapital eraketa gordina / Formación bruta de capital	-11,7	8,0	6,7
Barne eskariaren ekarpena / Aportación demanda interna	-10,0	7,3	6,1
Kanpo saldoaren ekarpena / Aportación saldo exterior	0,1	-0,6	0,3
BPGaren deflatorea / Deflactor PIB	-0,2	1,7	1,4
Enplegua / Empleo	-7,7	5,1	3,3
Langabezia tasa / Tasa de paro	10,6	10,3	9,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak eguneratu ditu 2021erako eta 2022rako. Aurreikuspen berri horietan, Eustaten hiru hilean behingo kontu ekonomikoei eta koiunturako hainbat adierazleri buruzko informazio gaurkotuena sartu da. Datu berri horiekin, 2021ean aurreikusten den BPGaren urteko hazkundera aurreko hiruhilekoko tasa berean mantentzen da. Hala, batez besteko aldakuntza tasa %6,7 izango da 2021ean, eta %6,4, berriz, 2022an. 2021erako BPGaren datu globalak aldaketarik izan ez badu ere, hazkundearen osaera

La Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco ha actualizado las perspectivas de crecimiento económico para los años 2021 y 2022. En estas nuevas previsiones, se han incorporado la información reciente de las cuentas económicas trimestrales del Eustat y de diferentes indicadores coyunturales. Con esos nuevos datos, el crecimiento anual esperado del PIB para 2021 se mantiene en la misma tasa que la estimada en el trimestre anterior. Así, la tasa media de variación se situará en el 6,7% en 2021 y será del 6,4% en 2022. Aunque el dato global del PIB para 2021 no se ha visto

zertxobait aldatu da. Oraingo aurreikuspenean, barne eskariaren ekarpena gorantz berrikusi da, azken kontsumoko gastuaren ekarpena handitu delako, bai familiena, bai administrazio publikoena, bai inbertsioarena. Horiek horrela, oraingo aurreikuspenean kanpoko sektoreak egiten duen ekarpena negatiboagoa da, eta sei hamarren kentzen dizkio BPGaren gehikuntzari. 2022an, kanpoko ekarpena hiru hamarren positibokoa izango da.

Barne eskariak susperraldi handiko profilari eutsiko dio, eta aurreko 7,3 puntuko ekarpena egingo dio hazkunderari, eta 2022an 6,1 puntuko ekarpena. Familietako kontsumoak erritmo onean jarraituko du gora egiten iragarpen horizontean. Konfiantzaren gorakadak, metatutako aurrezkiak eta lan igurikimen hobeek eskaeraren agregatu hori gorantz bultzatuko dute. Kapitalaren eraketa gordinari dagokionez, osagai horren azelerazio handia aurreikusten da. Aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiak dinamismo handiagoa izango du, enpresen konfiantza areagotuko da eta Europako funtsak sustatuko dira ekonomia suspertzeko. Administrazio publikoen kontsumo gastuak ekarpen positiboa egiten jarraituko du barne eskarian, baina moteltzeko joera argi batekin.

Eskaintzari dagokionez, ekoizpen sektore guztiek jarduera hobetuko dute 2021ean aurreko urtearekin alderatuta, eta 2022an hedapen ekonomikoak orokorra eta iraunkorra izaten jarraituko du. Industriaren adarrak hazkunde jarraituaren profila markatuko du, EAEko industriaren produktuak saltzen diren barne zein kanpo merkatuen susperraldiak lagunduta. Bilakaera horren arrisku garrantzitsua bat funtsezko produktuen hornidura arazoak jarraitutasuna litzateke, hala nola erdieroaleak, metalak eta produktu energetikoak. Bizitasun handiko joera zerbitzuen sektoreak ere partekatuko du. Bi adar horiek izan ziren COVID-19aren krisiak gehien kaltetu zituenak. Eraikuntzari dagokionez, jarduerak tasa esanguratsuetan jarraituko duela aurreikusten da, baina industriaren eta hirugarren sektorearen tasak baino txikiagoak izango dira. Eraikuntzaren adarrak ere, familien kontsumoarekin batera, atzeratutako eskariaren eragin positiboa hautemango du.

Lan merkatuaren arloan, enpleguaren hazkundera eta langabezia tasaren jaitsiera sendotuko dira EAEko ekonomian. Taula

afectado, sí ha variado ligeramente la composición del crecimiento. En la actual previsión, la aportación de la demanda interior se ha revisado al alza, gracias a un aumento de la contribución del gasto en consumo final, tanto el correspondiente a los hogares como el de las administraciones públicas, y de la inversión. Así, la contribución del sector exterior en la actual previsión es ahora más negativa y pasa a restar seis décimas al PIB. Para el año 2022, la aportación exterior será de tres décimas positivas.

La demanda interna mantendrá el perfil de fuerte recuperación y se predice una aportación al crecimiento de 7,3 puntos este año y de 6,1 puntos en 2022. El consumo de los hogares seguirá avanzando a buen ritmo en el horizonte de predicción. El aumento de la confianza, el ahorro acumulado, y mejores expectativas laborales impulsarán este agregado de la demanda. Respecto a la formación bruta de capital, también se prevé una intensa aceleración de este componente. Las perspectivas de su avance se basan en un mayor dinamismo de la economía mundial, un aumento de la confianza empresarial y el esperado impulso de los fondos europeos para la recuperación económica. El gasto en consumo de las administraciones públicas seguirá contribuyendo positivamente a la demanda interior, pero con un claro perfil de desaceleración.

Respecto a la oferta, todos los sectores productivos mejorarán su actividad en 2021 con respecto al año anterior, y en 2022 la expansión económica continuará siendo generalizada y sostenible. La rama industrial marcará un perfil de crecimiento sostenido, favorecido por la recuperación interior y de los mercados exteriores en los que se venden los productos industriales vascos. Un riesgo importante en esta evolución sería la continuidad en los problemas de suministros clave, como los semiconductores, los metales y los productos energéticos. La tendencia de fuerte aceleración será compartida por el sector servicios. Ambas ramas fueron las más afectadas por la crisis de la COVID-19. En la construcción, se prevé que la actividad continuará relanzándose a tasas significativas, pero menores que las de los sectores industrial y terciario. La rama de la construcción también se beneficiará, junto al consumo de los hogares, del efecto de la demanda embalsada.

En materia de mercado laboral, el incremento del empleo y el descenso de la tasa de desempleo sigue consolidándose en la



makroekonomiko berriaren aurreikuspenen arabera, enpleguaren hazkundera %5,1ekoa izango da 2021ean eta %3,3koa, berriz, 2022an. Tasa horien ondorioz, gutxi gorabehera 44.000 lanpostu sortuko dira 2021ean eta 31.000 enplegu inguru 2022an. Zenbaki horiek lanaldi osoko lanpostuei dagozkie, hau da, aurreikusitako BPGaren mailara iristeko behar diren lanorduei. Pertsona landunei dagokienez, aurreikuspen ekonomiko onen ondorioz, gaur egun aldi baterako lan erregulazioko espediente batean dauden soldatapeko langileak lanera itzuliko dira. BJAri dagokionez, okupazioak 12.300 eta 10.800 landun gehiago izango ditu 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren. Bestalde, langabezia tasa %10,3an kokatuko da 2021ean, eta %9,5ean 2022an.

Eusko Jaurlaritzaren 2021erako eta 2022rako aurreikuspen ekonomikoak tarteko eremuan kokatzen dira, beste erakunde batzuek EAEko ekonomiari buruz argitaratu dituzten iragarpen tarteen barruan. Hala, 2021erako, eskura dauden aurreikuspen eguneratuak Funcasen %5,5 eta Confebasken %7,2 artekoak dira. 2022rako, hazkunderako balio minimoa Hispalinkek ezartzen du (%5,3) eta balio maximoa BBVAk aurreikusten du (%7,5).

3.4.- GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Gipuzkoako ekonomiari dagokionez, 2022an inguruko ekonomien antzeko hazkundera espero da: barne produktu gordina % 6,4 inguru haziko da termino errealetan, eta % 7,9 inguru termino korronteetan.

ekonomía vasca. Las previsiones del nuevo cuadro macro fijan el crecimiento del empleo en el 5,1% para 2021 y el 3,3% para 2022. Estas tasas se traducen en una creación de aproximadamente 44.000 empleos en 2021 y en torno a 31.000 empleos en 2022. Estas cifras se refieren a los puestos de trabajo a tiempo completo, es decir, las horas de trabajo necesarias para alcanzar los niveles de PIB previsto. Referente a personas ocupadas, las buenas perspectivas económicas supondrán la reincorporación de las personas asalariadas actualmente en ERTE. En términos de la PRA, la ocupación aumentará en 12.300 y 10.800 personas ocupadas, en 2021 y 2022, respectivamente. Por otra parte, la tasa de desempleo se situará en el 10,3% en 2021 y descenderá hasta el 9,5% de promedio anual en 2022.

Las previsiones económicas del Gobierno Vasco para el año 2021 y 2022 se sitúan en la zona intermedia dentro de los intervalos de predicciones que han publicado otras instituciones para la economía vasca. Así, para 2021, las perspectivas actualizadas disponibles varían entre el 5,5% de Funcas y el 7,2% de Confebask. Para 2022, el valor mínimo de crecimiento lo establece Hispalink (5,3%) y el valor máximo lo prevé BBVA (7,5%).

3.4.- DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA

Por lo que se refiere a la economía guipuzcoana, en 2022 se estima un crecimiento similar al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 6,4% en términos reales y del 7,9% medido en términos corrientes.